

GERNIKA-LUMO

2024-2027 EPERAKO EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP)

I.- SARRERA..... 2 or.

II.- EKINTZA PLANAREN EGITURA/OHARRAK..... 3 or.

- Egitura eta ekintza kopuruak
- Nabarmentzekoak
- Ekintza-kodearen esanahia (adibidez 1.1.4.1. azpi-ekintza)
- Testuaren (letraren) koloreak adierazten duena
- Plan Estrategikoa-ESEP ulertzeko, oinarrizko ERANSKINAK:
 - **1. Eranskina** (“2019-2023 epeko Planaren balantzea eta egungo egoeraren diagnostikoa”)
 - **2. Eranskina** (garatu den partaidetza prozesuaren emaitzak (dinamizazio batzarrak))

III.- HELBURU ETA ESPARRU BAKOITZEKO EKINTZAK ... 5 or.

- 1. Helburu estrategikoa (Transmisioa)..... 6 or.
- 2. Helburu estrategikoa (Erabilera)..... 10 or.
- 3. Helburu estrategikoa (Euskara elikatzea)..... 15 or.
- 4. Zehar lerrokoak.....21 or.



gernika-lumoko
euskara zerbitzua



I.- SARRERA

Nabarmena da euskarak Gernika-Lumon egin duen **aurrerakada azken 35 urteetan**. Gure aurrekoek, urte zailetan, lan eskerga egin zuten eta hori gogoan izatekoa eta eskertzekoa da.

Euskara hizkuntza ofiziala denetik, hainbat urrats eman dira sendotu dadin, lege-babesa, baliabideak, laguntzak, atxikimenduak eta abar. Bide horretan, Gernika-Lumoko Udalak bere ekarpena egin eta eutsi egin dio udalerri mailan euskarari bultzada emateko lanari.

Hori guztia, gure hizkuntzaren **normalizazioa helburu** eta, horretarako, euskararentzat arnaguneak sortzeari ekin zaio makalik daukagun esparruetan, erabilerarako baldintza egokiak finkatuz. Horixe dugu erronka, ezagutzatik erabilerarako urratsa ematea euskaradunok, **euskaraz bizi izateko hautua egitea**. Egindakoarekin pozik egonda ere, **zeregin erraldoia aurretik** daukaguna.

Egin behar horretarako, ezinbesteko tresna izan dugu **EUSKARA BATZORDEA**, aurreko plangintzaldietarako hausnarketa eta aholkularitza gune. Aurrerantzean, Euskara Batzordearen garrantzia aintzat hartuz, gizarte esparru desberdinetako partaidetza areagotzeko bideak jorratu beharra dakusagu (lan- mundua, merkataritza, kirola,...).

2024-2027 eperako Plan Estrategikoa-ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) moldatzea dagokigun une honetan, aipagarria dugu 2023ko martxoan abian jarri zen **PARTAIDETZA PROZESUA**, Euskara Batzordea bitarteko, eta horri lotutako **DINAMIZAZIO SAIOAK** (www.gernika-lumo-euskaraz.eus). Guztira 6 batzar/saio presentzial izan dira eta bat online burutu dena. Prozesu horren emaitzak dira aintzat hartu direnak Plan Estrategiko berria moldatzeko eta, horri eskerrak, begi askoren ikuspuntutik plana errealitatera hobeto egokitu ahal izan da, duda barik. Beraz, geure eskerrona dinamizazio saio horietan ekarpenak egin eta lanean aritu izan diren guztiei. Argitu behar, prozesu hori guztia ESEPN arabera burutu dela, aurreko plangintzaldian Eusko Jaurlaritzak indarrean jarritako metodologia.

II.- EKINTZA PLANAREN EGITURA - OHARRAK

- Egitura eta ekintza kopuruak

Hurrengo taulan helburu estrategiko eta esparru bakoitzerako aurreikusi diren ekintza kopuruak islatzen dira (urte bakoitzeko, lehentasuna dutenen kopuruak). Kanpo utzi da 4. Esparrua, Administrazioa, Udal barruko Erabilera Planari dagokiolako; indarrean dago 2023-2027 eperakoa.



Helburu estrategikoak	Esparruak	Ekintzak guztira	2024 urtea	2025 urtea	2026 urtea	2027 urtea	Lehentasuna duten ekintzak
I.- Transmisioa 27 ekintza	1.- Familia transmisioa	9	9	6	7	6	6
	2.- Irakaskuntza	16	15	14	13	11	5
	3.- Euskalduntze/Alfabetatzea	2	2	1	2	1	1
II.- Erabilera 38 ekintza	5.- Gune geografiko euskaldunenak	10	8	9	5	5	3
	6.- Arlo Sozioekonomikoa	11	9	9	9	9	2
	7.- Aisia eta kirola	17	13	15	9	9	4
III.- Euskara elikatzea 30 ekintza	8.- Liburugintza	6	3	5	2	2	3
	9.- Kulturgintza	5	5	4	4	4	3
	10.- Publizitatea	3	3	3	3	3	2
	11.- Corpusa/kalitatea	4	3	3	2	2	2
	12.- Hedabideak	4	3	3	3	2	2
	13.- Inform. Komun. Tek.	8	7	6	7	6	3
IV.- Zehar lerrokoak 31 ekintza	14.- Sentsibilizazioa/Motibazioa	27	22	17	14	16	5
	15.- Barruko proiektzioa	4	3	2	2	1	0
		126	105	97	82	77	41

Oharra.- “Helburuak lortzeko zehar lerroak” edo transbertsalak, hau da, helburu bat baino gehiagorekin lotutako ekintzak.

- **Nabarmentzekoak:**

- **Ekintzarik gehien aurreikusi den helburu estrategikoa “ERABILERA” dugu (38)** eta hurrengo dago “ZEHAR LERROKOAK” (helburu estrategiko bat baino gehiagorekin lotutako ekintzak / 31).
 - **Ekintzarik gehien aurreikusitako esparrua “SENTSIBILIZAZIOA/MOTIBAZIOA” da (27);** garrantzitsua da erreparatzea horko ekintzei, helburu estrategiko bat baino gehiagotan eragiten dutelako. Hurrengo dauzkagu “aisia eta kirola” (17 ekintza), “irakaskuntza” (16 ekintza) eta arlo sozioekonomikoa (11 ekintza).
 - Osera, **“familia transmisioa” da lehentasunezko ekintzarik gehien** dituen (6). Beraz, ekintza kopurutan nabarmentzen ez den arren, aurreikusitako ekintzei aparteko garrantzia ematen zaie. Lehentasunezko ekintza kopuruak ere nabarmenak dira irakaskuntzan (5), sentsibilizazioan (5) eta aisia eta kirolean /4)
- **Plan Estrategikoa-ESEP ulertzeko, oinarritzko ERANSKINAK:**
- **I. eranskina** (“2019-2023 epeko Plan Estrategikoaren balantzea eta egungo egoeraren diagnostikoa”), orain arteko ibilbidearen diagnostiko zehatza izateko.
 - **II. eranskina**, Euskara Batzordean garatu den partaidetza prozesuaren emaitzak (dinamizazio batzarrak).

III.- HELBURU ETA ESPARRU BAKOITZERAKO EKINTZAK

- **Ekintza-kodearen esanahia (adibidez 1.1.4.1. azpi-ekintza):**
 - **1. esparrua** (“Familia bidezko transmisioa”)
 - **1.1. Neurria** (“Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea –Toki Erakundeak-”)
 - **1.1.4.1. Azpi-ekintza** (“Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak, euskarazko gela apaingarriak, euskal izendegia”)
- **Testuaren (letraren) koloreak adierazten duena:**
 - Aurreko planean aintzat hartuak eta **ABERASTEKOAK/EUSTEKOAK** ikurra dutenak berdez
 - **BERRIAK** ikurra dutenak gorriz
 - Lehentasunezkoak eta gauzatzeko errazak 
 - Lehentasunezkoak eta gauzatzeko zailak 

I. Helburu estrategikoa: Euskararen jabekuntza (transmisioa)

1.- Familia bidezko transmisioa

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Eragileak Laguntzaileak	Noiz
1.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea (Toki erakundeak)			
1	1.1.4.1.- Haur jaio berrien gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako bildumak igorri: ipuinak, kantuak, euskarazko gela apaingarriak, euskal izendegia... (sobrea /materiala: ku-ku liburuxka, eskuko hiztegia, guraso elebidunei aholkuak, ...)	- HNT - Udal Erregistroa - Alkarbide	Urtero
	1.1.4.2.- Euskarazko produktuen katalogoa ezagutzera eman: web orrian, gurasoei bidali, udalaren menpeko guneeetan eskuragarri jarri (Euskarazko Produktuen Kanpaina)	- Eskolak - Jostailu dendak - Alkarbide	Urtero
2	1.1.6.1.- Irakaskuntza zentroetako Normalkuntza Planetan gurasoekiko normalkuntza ekintzak sendotu... - DAGOEN EKINTZA ABERASTU.- Guraso elkartearen arteko elkarlan foroa antolatu; landu guraso eskolak (liburutegiko ekintzak, zentroetako normalkuntza planak).	- Udal Eskola Konts. - Alkarbide - Guraso elkarteak	Urtero
2	1.1.6.2.- Pediatriarekin elkarlana sakondu (emagina). Erabilera+transmisioa... Alkarbide/Aldundia+Osakidetza= Batzorde teknikoa	- HNT - Alkarbide - Guraso elkart.	2024 2026
	1.1.6.3.- Guraso eskolen bidez hizkuntza ohitura tailerrak eskaini	- HNT - Udal Eskola Kontseilua	Urtero
2	1.1.6.4.- EKINTZA BERRIA.- Herri mailan erreferenteen zerrenda egokitu, ikerlana borobildu eta, horren arabera, azpi-ekintzetako plan bat taxutu.	- Eusk Tekn. - Eusk. Dinam. - Eusk. Batzordea	2024 2025
1	1.1.6.5.- EKINTZA BERRIA.- Kultur Etxearekin elkarlanerako hitzarmena/akordioa adostu (liburutegiarekin sasoi bateko dinamika berreskuratu, Gazte informazio Bulegoarekin ere bai.....; familiari begirako ekintzak, tailerrak,..., sare sozialak, Gaztelekua, zinea euskaraz...)	- Eus. Tekn. - Kultur Etxeko zuz. - Liburutegiko ard.	2024
1.3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea (Toki erakundeak)			
	1.3.1.2.- Udan ludoteka familiarra antolatu (udako kanpamenduak txikientzat)	- URE elkarte - Gaztedi Arloa	Urtero
1	1.3.1.3.- Jolaslekuetan eragiteko egitasmoak (“Kalean olgetan” kanpaina) - DAGOENARI EUTSI.- Mantendu eta sendotu (“Kalean olgetan” kanpaina jolastokietan, sei hilabetekoa).	- URE elkarte - Gaztedi Arloa	Urtero

Esparru honekin lotutakoak begiratu “Zehar lerrokoak” atalean (21. orrialdea)

2.- Irakaskuntza

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Eragileak Laguntzaileak	Noiz
2.1. Euskararen jakite-maila eta erabilera hobetzeko prestakuntza sendotu eta metodologia eta baliabide berriak garatzea			
1	2.1.8.2.- Udal Eskola Kontseilutik Normalkuntza planetarako eta eskolaz-kanpoko ekintzetarako <u>diru-laguntza deialdia</u> (ohiko deialdia) / DAGOEN EKINTZA ABERASTU.- Hezkuntza lege berria oinarri, Udal Eskola Kontseiluan hausnarketa taldea moldatu, Normalkuntzari dagokionean eskaintzen duen zelai jokoa argitzeko eta udalerriko dinamikarekin uztartzeko.	- HNT - Udal Esk. Kont. - Berritzegunea	Urtero
	2.1.8.3.- EPAko arduradunekin landu modua ikasleak Berbalagunera bideratzeko, hitzaldiak, elkarlana	- Berbalagun tekn. - HHI zuzendaritza - HNT	2024 2026
	2.1.8.4.- Ikastetxeetako normalkuntza planak eta kirol elkarteetako dinamikak uztartu (kontuan udalerrri mailan lortutako adostasuna elkarte eta zentroen artean eskola kirola dinamizatzeko)	- Udal Esk. Kont. - HNT - Kirol Patronatua	2024 2026
2.3. Ahozko hizkuntza-jarduna lantzea, bereziki eremu soziolinguistiko erdaldunagoetan			
	2.3.1.1.- ARRUE ikerketako metodologia erabilia, Haur Hezkuntzako 5 urteko geletan azterketa sakona egin, gurasoen transmisioa dela eta	- Udal Esk. Kont. - Berritzegunea	2025
2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea			
1	2. 4.4.1.- <u>Bertsolaritza</u> Gernika-Lumon urteroko programa sustatu eta lagundu (hitzarmena / irakaskuntza zentroetan Bertsozale elkartearen bitartez)	- HNT - Udal Esk. Kont. - Berritzegunea	Urtero
	2.4.4.2.- <u>Euskara Zine aretoetara</u> programan parte hartzera animatu eta hori gauzatzeko baliabideak eskaini (aretoak, diru-laguntza / IRUDI BIZIAK eta TINKO enpresak)	“ “	Urtero
1	2.4.4.3.- Ahozko adierazmena indartzearen <u>antzerkigintza</u> sustatu Eskola munduan (jardunaldiak, diru-laguntzak,...) (antzerki jardunaldiak). Udal Eskola Kontseilua bilgune eta Kultur Etxearekin elkarlanean, antzerkigintza sustatzeko plan bat eratu udalerriko zentroetan, ahozko adierazmena landu eta etorkizuneko euskarazko sortzaile eta kontsumitzaileak areagotzeko.	“ “	Urtero
	2.4.4.4.- Eskolarteko dantzari eguna, Udak Eskola Kontseiluan aintzat hartutako ekintza komuna (eskolarteko dantzari eguna)	“ “	Urtero
1	2.4.4.5.- Idazmena sendotzeko, <u>Idazlan Koaderno</u> egitasmoa garatu eta inplementatu LH/DBH/Batxilergoko ikasleen artean.	“ “	Urtero
2.5. Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea (Toki erakundeak)			

2. 5.1.0.- EKINTZA BERRIA.- Gazteekin praktika onak landu euren gustuak, proiektuak,... Zehaztu eta laguntzeko (baliabideak eskaini).	- Eusk. Dinamizat. - Astra - Iparragirre - Mobidu Gernika - Arrolape	2024 2025
- DAGOEN EKINTZA ABERASTU.- Lehen aipatutako “erreferenteei buruzko azterlanarekin” lotuta, kirol erreferenteak landu (entrenatzaileak, kirol arduradunak, kapitainak) / 1.1.6.4. ekintzarekin lotuta	- Eusk. Dinamizat. - Kirol Patronatua - Kirol elkarteak	2024 2025
2.5.1.1.- Irakaskuntza, euskara eta ingurune hurbilaren kontua lantzeari erreparatuta, eskola publikoaren eta ikastolen jaialdietarako garraioa lagundu (bidaiak antolatzea)	- Kultur Etxea - Guraso elkarteak	Urtero
2.6. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea		
2.6.1.1.- DBHko ikasle etorkinei euskarazko errefortzua eskaintzeko bideak jorratu (diru-laguntza deialdia bitarteko eta udalerriko akademiak eta zentroak harremanduz)	- HNT - Udal Esk. Kont. - Berritzegunea	Urtero
2.6.1.2.- Eskoletako Normalkuntza Planetan etorri berriei harrera egiteko finkaturiko protokoloak Eskola Kontseiluan hausnartu eta partekatu helburuak	- HNT - Udal Esk. Kont. - Inmigrazio tekn.	Urtero
2.6.2.1.- Jarraipen zehatza egin matrikulazioari etorri berriei dagokienean hurrengo urteetan. (Berritzegunea/Mankomunitatea)	- Eusk. Zin. - Inmigrazio tek	Urtero
2.6.2.2.- Mankomunitateko Inmigrazio teknikariarekin elkarlana, etorri berriak gizarteratze hizkuntza irizpideak kontuan izan daitezten (Mankomunitatea / Lanbide Ekimenak / Gazterren programa)	- HNT - Inmigrazio tek - Urtxintxa	Urtero

Esparru honekin lotutakoak begiratu “Zehar lerrokoak” atalean (21. orrialdea)

3.- Euskalduntze-alfabetatzea

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Eragileak Laguntzaileak	Noiz
3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak (Toki erakundeak)			
2	3.8.2.1.- "Beralagun proiektua jorratzeko taldeak sortu herrian (euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak/ia euskaldunak harremanetan) BERBALAGUN egitasmoa / DAGOEN EKINTZA ABERASTU .- Beralagun proiektua garatu eta sendotzeko formula berriak probatu.	- Eusk. Zin. - HNT - Euskaltegiak - Bust. Eusk. Bizi	2024 2026
3.8.2.2.- Helduen adin-taldea kontuan hartu. Beralagun indartu eta Hizkuntza portaeretan eragiteko tailerrak eta jarduerak antolatu (hitzaldiak, familia dinamikak, mendi irteerak,...)	- Euskalt. zuzendariak - Beralaguneko Talde Eragilea	Urtero	

Esparru honekin lotutakoak begiratu “Zehar lerrokoak” atalean (22. orrialdea)

II. Helburu estrategikoa: Euskararen erabilera:

4.- Administrazioa

Esparru honi dagokionean, EUSKARA PLAN berria moldatu da 2023-2027 eperako Udaleko Talde Eragilean eta Udalbatzak onartu zuen 2023ko otsailaren 28an. Hona hemen ekintza kopuruen laburpena:

- **Zerbitzu hizkuntza (21 ekintza):**
 - Erakundearen irudia: 13 ekintza
 - Herritarrekiko harremanak: 8 ekintza
- **Lan hizkuntza (87 ekintza):**
 - Barne harremanak: 15 ekintza
 - Kanpo harremanak: 12 ekintza (Administrazioa 6 / Erakunde pribatuak 6)
 - Pertsonen kudeaketa: 6 ekintza
 - Kudeaketa sistema: 13 (Pertsonak 3 / Estrategia 5 / Herritarrak eta zerbitzua: Hizkuntza irizpideak 5)

Esparru honi lotuta dauden ekintzak “zehar lerrokoen” atalean daude eta dinamizazio saioetan egindako ekarpenak ere txertatu ditugu (17 eta 18. orrialdeetan):

- 14.1.1.2. ekintza eta jarraiko BERRIA.
- 14.5.2.1. eta 14.5.2.2. ekintzak (aurreko 18. orrialdean (hiru ekintza berezi hurrengo ataletan: 14.5.2.1. eta 14.5.2.2.).

Plan Estrategiko honen 1. Eranskinean (2019-2023 epeko ESEPen balantzea) dagoen 4. Atalean agertzen da esparru honi dagokion diagnostikoa zehatza.

5.- Gune geografiko euskaldunenak

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saiostatik hartutakoak)	Eragileak Laguntzaileak	Noiz
5.1. Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea (Toki erakundeak)			
5.1.2.1.- Ongizate arloarekin elkarlan berezia eratu, bere menpeko erakundeekiko harremanetan hizkuntza irizpideak txertatzeko.....MANKOMUNITATEA		- HNT - Ongizatea	2025
5.1.4.1.- Alkarbiden lan-mahai berezia sortu. Aldundia bitarteko horrelako erakundeetan eragiteko protokoloak finkatzearen (lan mahai desberdinak: transmisioa, aisia/kirola, lan-mundua)		- Alkarbide - Eusk. Tekn. - Eusk. Dinam.	Eginda
5.1.6.1.- Herritarrengan modu erakargarrian eragin, dakiten euskara hori plazan ere erabiltzeko. Ekimenak definitu eta martxan jarri, ...eragileekin elkarlanean:...(euskaraz bizi karpeta, Errenta aitortpena euskaraz, Gidabaimena euskaraz,...)		- URE elkarte - Bust. Eusk. Bizi	Urtero
BERRIA- Helduen erreferenteak identifikatu (1. Helburu estrategikoan gazteei begira planteatutakoaren parekoa) / 1.1.6.4. ekintzarekin lotuta eta handik gauzatzekoa		- Eusk. Tekn. - Kutlru Etxeko zuz. - Eusk. Dinamizat.	2024 2025
5.1.6.3.- Helduentzako era guztietako ikastaro eta ekimenak antolatu euskaraz: erlajazioa, sukaldaritza, lehen arreta, dantza ikastaroak, reflexoterapia, irteerak...(Berbalagun, Kultur Etxea,...)		- Berbalagun - Kultur Etxea	Urtero
5.1.8.1.- Euskara Batzordean ikastetxeen partaidetza ziurtatu (deialdirako zerrendan daude)		- HNT	Urtero
5.1.8.2.- Udal Eskola Kontseilua bilgune, ikasturteko eskolaz kanpoko egitarau komunari buruzko hausnarketa burutu (irailean eta urrian)		- HNT - Irakaskuntza zentroak	Urtero
1 5.1.11.1.- Etorrinekin “bikote linguistikoak” egitasmoa garatzen lagundu / BERRIA (honekin lotuta).- “Berbatruke” ko laguntzaileekin sentsibilizazioa landu, informazioa eman		- HNT Mankomunitatea Euskaltegiak	Urtero
1 5.1.11.2.- BERRIA- Heldu gazteekin foroa eratu (Astra, Iparragirre, Arrolape,...) hausnarketa egiteko eta euren ideia/ekarpenak/proposamenak gauzatzeko aldera baliabideak eskaini.		- Astra, Iparragirre, Arrolape, “Mobidu” - Eusk. Dinamizat.	2024 2025
1 5.1.11.3.- BERRIA- “Mobidu Gernikan” plataformarekin elkarlana (hitzarmena) planteatu (“euskal gune estrategikoak” esparruaren lanketa)		- Eusk. teknik. - Mobidu Gernikan - Eusk. dinamizat.	2024 2025

6.- Arlo sozio-ekonomikoa

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Eragileak Laguntzaileak	Noiz
6.1. Euskara planak zabaltzeko babesa eta laguntza ematen jarraitzea eta dirulaguntzen sistema etengabe hobetzea (Toki erakundeak)			
6.1.3.2.- Ezagutzera eman euskararen erabilera normalizatzeko udalean bertan eta beste erakundeetan eskaintzen diren aukera eta programak: diru-laguntzak, laguntza teknikoak (HITZARGUNE)		- Hitzarguneko enpresa - HNT	Urtero
6.1.4.1.- HITZARGUNE kanpaina garatu enpresa txiki eta ertainetan (laguntza teknikoak, aholkularitza, Euskara planak...). DAGOENA ABERASTU - “Hitzargune” kanpaina indartu		- Eusk. dinamizat. - Hitzarguneko enpresa - HNT	Urtero
6.1.4.2.- HITZARGUNE kanpaina garatu merkataritza eta ostalaritza arloan (diagnostikoa, laguntza teknikoak, aholkularitza...)		- Hitzarguneko enpresa - HNT	Urtero
6.1.4.3.- Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkartarekin hitzarmena sinatu elkarlanerako Hitzarmena		- Ziurtagiri Elk - HNT - Eusk. dinam.	Urtero
6.1.4.4.- BERRIA - Lanbide ekimenak zentroaren bitartez eskualde mailan enpresetan ekiteko egitasmoari eutsi (Lanbide Ekimenak Zentroa eta Aldundiaren artean hitzarmena sinatzeko eskaintzari eutsi)		- Lanbideko ardurad. - Aldundia - Eusk. dinamizat. - HNT	2024
6.1.12.1- Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluarekin hitzarmena sinatu elkarlanean kanpaina zehatzak burutzeko HITZARMENA		- Kontseilua - HNT - Euskalgintza	Urtero
6.3. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartzea			
6.3.2.1.- Kontsumitzaileen hizkuntza eskubideen eta enpresarien/merkatarien hizkuntza betebeharren inguruko kanpaina		- HNT - Hitzarguneko enpresa	2026
6.4. Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausoak ematea			
6.4.2.1.- Enpresetako erabilera planetan edo mikroplanetan hizkuntza irizpide minimo batzuk finkatzea...HITZARGUNE		- HNT - Hitzarguneko enpresa	Urtero
6.4.2.2.- Hizkuntza paisaia bereziki landu Hitzargune programaren bidez, enpresen datu-basea eguneratuta		- HNT - Hitzarguneko enpresa	2025 2027
6.8. Euskara enpresa munduan erabiltzeari prestigioa ematea			
6.8.1.1.- Banan-banako elkarrizketak egin merkataria eta ostalariekin paisaia linguistikoak euskararen erabileran duen eraginaz, batik bat zabaltzen diren lokal berrien kasuan (hitzarmengintza, merkataritza eta ostalaritza)		- Hitzarguneko enpresa - HNT	Urtero
6.8.1.2.- Ereruzko enpresen kasuak aurkeztu besteak erakartzeko (Maier, Gernika Gabiketak, Ekin Autoak, Torrezuri,...) HITZARGUNE		- Hitzarguneko enpresa - HNT	Urtero

Esparru honekin lotutakoak begiratu “Zehar lerrokoak” atalean (22. orrialdea)

7.- Aisia eta kirola

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioretatik hartutakoak)	Eragileak Laguntzaileak	Noiz
7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea (Toki erakundeak)			
	7.1.1.1.- Haurrentzako ekintzak antolatu: opor sasoiotako eskaintza (udaleku irekiak, udako ludoteka, gabonetako parkea...)	- URE - Guraso elkart.	Urtero
	7.1.1.2.- Urte osoko gazte-programa planifikatu, diseinatu eta garatu. Ekintza berritzaileak bultzatu (“Asteburuetako aisialdia”, Gaztelekuko dinamizazioa, Lurgorriko lokaleko dinamizazioa).	- HNT - Gazte Inform. - URE	Urtero
	7.1.3.1.- Informazioa eman herritarrei euskarazko aisialdi eskaintzei buruz: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu.... EUSK. WEB, KULTURA WEB, KULTUR ETXEKO TRIPT.	- Kultur Etxea - Gaztedi Saila	Urtero
2	7.1.3.2.- Kultura arloak aisialdirako/programaziorako egiten duen lana sistematizatu eta, hizkuntzari buruzko datuak aintzat hartuta, indize sistema bat eratzea balorazioak egiteko. DAGOENA ABERASTU- Elkarte eta zerbitzu desberdinen hileko programazioa osatu, hizkuntza irizpideak kontuan hartzen diren hausnartu eta zabalkunde bideak jorratu (“zinema euskaraz” ekimena programazioan txertatu, hilean behin, kalean eta dohainik, haurrei eta nerabeei)	- Kultura Zin. - Kultura Zuz. - HNT	2024
	7.1.3.3.- Gazte Plana berpiztu edo ordeztu plan estrategiko bat eratu.	- Gazte inform. - HNT	2025
1	7.1.4.1.- Kulturgintza lantzeko tailerrak antolatu hizkuntza irizpideen arabera: marrazkiak, idazketa, argazkigintza, zinema, bideoa, web bidezkoa, literatura, dantza, kanta... (Berbalagun, Gazte Informazioa, Kultur Etxea...)	- Kultur Etxea - Berbalagun	Urtero
	BERRIA- Dantza tailerra antolatu “erromerietarako” eta hiru hilabeterik behin jaialdi berezia Burutu (Elai Alai dantza taldea edo Aiko taldea...)	- Eusk. Dinamizat. - Kultur Etxeko zuz. - Elai Alai? / Aiko? - Berbalagun	2025
7.7. Etorri berrien integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko euskarazko aisialdi programa egokiak antolatzea (Toki erakundeak)			
	7.7.1.1.- Etorri berrien integratzaile bideratutako aisialdi programak bideratu (Gazterren, Eusluderrak, Gurot lehiaketa, “Aittu!” hitzaldi laburrak)	- AHIZE - Urtxintxa - Mankomunitatea - Alkarbide	Urtero
1	7.7.1.2.- Ekitaldiak antolatu herrialde desberdinetako ohiturak ezagutzera emateko: musika, janari, bestelako produktu, merkatu, dantza, kirol... edota beste gairen baten inguruan (Ideasur, Mankomunitatea,...)	- Ideasur - Inmigratio tek	Urtero
7.8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea (Toki erakundeak)			
	7.8.1.1.- Alkarbideko aisia eta kirol lan-mahaiaren bidez, kirol federazioetan eragiteko bideak jorratu	- Eusk. Dinamizat. - Alkarbide - Aldundia Kirola	2024 2025
	7.8.2.2.- Hitzarmena sinatu herriko Klub eta kirol taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak	- Hitzargune -eusk dinam - Kirol Elkartek	2024 2025

	identifikatu eta elkarrekin garatzeko... HITZARGUNE kirola		
	7.8.2.3.- Kirol arloko ahozko erabileraren diagnostikoa egin eta Kirol patronatuarekin elkarlanean aritu erabilera areagotzeko ...HITZARGUNE (“JOKATU” programa)	- Hitzarguneko enpresa - Kirol Patronat - HNT	2025
	7.8.2.4.- Eskola kirolaren eta kirol elkarteen helburuak partekatzeko udalerrian sortu den dinamika sendotu (Udal Eskola Kontseilua bitarteko)	- Hitzargune-eusk. dinm - Eskola Kontseilua - Kirol elkarteak	Urtero
	7.8.3.1.- Informazioa eman herritarrei eta elkarteei kirol eskaintzaz eta kirolari buruz euskaraz sortutako materialaz...HITZARGUNE / DAGOENA ABERASTU - Kirol arloko lanketa zabaldu (kirol-praktikarekin lotutako erakunde, enpresa eta sistema guztiak kontuan hartu...)	- Hitzargune-eusk.dinam. - Kirol Patronatua - Kirol elkarteak	Urtero
	7.9. Euskal herritarrentzat kirolaren eremuan erakargarriak diren jarduera, ekintza eta zaletasunetan euskarazko eskaintza areagotzea eta horren eskaera sustatzea		
2	7.9.2. 1.- Udalaren Kirol Erakundeak eskaintzen dituen ikastaroetan eta diru-laguntza deialdietan hizkuntza irizpideak txertatu (jarraipenerako koordinazioa landu) UDAL ADM-KO ERABILERA PLANA	- Kirol Patronat - HNT	2024
	7.9.2.4.- Jendaurreko kirol jardueretan euskararen presentzia bultzatu (futbol zelaian, saskibaloia kantxan, pilotalekuan...)	- Hitzargune-eusk dinam - Kirol Patronat - HNT	Urtero
	7.9.2.5.- Kirol elkarteetako bazkideek presioa areagotzeko dekalogo partekatua (“Gure artean”) sortu eta herrian hedatu	- Hitzargune-eusk dinam - Kirol Patronat - HNT	2025

Esparru honekin lotutakoak begiratu “Zehar lerrokoak” atalean (22. orrialdea)

III. Helburu estrategikoa: Euskararen elikadura:

8.- Liburugintza

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Eragileak Laguntzaileak	Noiz
8.1. Irakurzaletasuna bultzatzea (Toki erakundeak)			
1	8.1.4.1.- Ahalegin berezia egin udal liburutegian euskarazko fondoa gehitzeko -liburuak, ikus-entzunezkoak, musika, filmak- Liburutegiko arduradunekin helburua landuz (Jarraipenerako datuak sistematizatu) DAGOENA ABERASTU.- Liburutegi ibiltarian komikiak sustatu adin tarte gazteagoentzat.	- Kult. Etxeko Zuz. - Liburutegia - HNT	Urtero
	8.1.10.1.- Euskararen egunaren inguruko 11 orduko irakurraldia (Berbalagun).	- Berbalagun - HNT - Ikastetxeak	Urtero
	8.1.10.2.- Bigarren eskuko liburuen azoka egin hilero	- HNT - Kultur Etxeko zuz. - Liburutegia	2025
1	8.1.10.3.- BERRIA.- Liburutegiarekin elkarlanean gida(k)/informazio orriak moldatu adin tarteak kontuan hartuta (liburutegiaren erabilpenerako aholkuak, nobedadeei buruzko pilulak,...)	- Eusk. zineg. - Kultura zineg. - Liburutegiko ard.	2024
1	8.1.10.4.- BERRIA.- Irakurleen txokoa, kluba,...eratu, liburutegia eta liburu dendak elkarlanean.	- Euskara dinam. - Liburutegiko ard. - Liburu dendak	2025
	8.1.10.5.- BERRIA.- Booktookerrak martxan jarri (liburutegiarekin elkarlanean)	- Euskara dinam. - Liburutegiko ard. - Komunikazio ard.	2025

Esparru honekin lotutakoak begiratu “Zehar lerrokoak” atalean (23. orrialdea)

9.- Kulturgintza

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Eragileak Laguntzaileak	Noiz
9.2. Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea (Toki erakundeak)			
	9.2.3.1.- Herritarren artean euskarazko kultur produkzioa ezagutarazi: gida, katalogo, web orri, euskaltegi eta udal sailak....	- HNT - Euskaltegiak	Urtero
1	9.2.3.2.- Kultura sorkuntzarako baliabide gehiago eman (giza eta diru baliabideak / aldizkariak, egunkariak, antzerkia,...) eta irizpideak ezarri euskarazko sorkuntza bultzatzeko. DIRU LAGUNTZA DEIALDIA. DAGOENA ABERASTU - Elkartek saritu euskarazko eskaintzazatik/ sorkuntzazatik (Zine-Klub, Iparragirre,...)	- Kultura/Euskara Zin. - Kultur Etxeko Zuz. - HNT	Urtero
9.3. Euskarazko ekoizpenen zirkuituak antolatzea (Toki erakundeak)			
	9.3.1.1.- Euskarazko kultur zirkuitoetan parte hartu (Sarea, Topagunea, Korrika,...)	- Kultura Zin. - HNT	Urtero
9.4. Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea (Toki erakundeak)			
1	9.4.2.1.- Kultura Plan Estrategikoaren garapenean hizkuntza irizpideak aintzat hartzea (jarraipena sistematizatu)	- Euskara Zin. - Kultur Etxeko Zuz. - HNT	2024
1	9.4.3.2.- Kultura arloan herritarren eta talde ezberdinen ekarpenak biltzeko guneak sortu: web guneak, foroak, bilerak... KULTURA BATZORDEA	- Kultur Batzordea - Kultur Etxeko Zuz. - HNT	Urtero

Esparru honekin lotutakoak begiratu “Zehar lerrokoak” atalean (23. orrialdea)

10.- Publizitatea

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Eragileak Laguntzaileak	Noiz
10.2. Herri-administrazioen euskarazko publizitatea hedabideetan argitaratzea (Toki erakundeak)			
10.2.1.1.- Administrazioeko Erabilera Planeko hizkuntza irizpideak kontuan hartzea. (Udal adm-ko Erabilera plana)		- Eusk. Zineg. -Udaleko komunikazio arloa	Urtero
10.3. Euskarazko publizitatearen merkatua prestigiatzea iragarleen artean (Toki erakundeak)			
1	10.3.2.1.- Enpresa, merkatari eta elkarteei laguntza teknikoa eskaini publizitatea euskaraz egin dezaten: itzulpenak,... HITZARGUNE	- Hitzarguneko enpresa - HNT	Urtero
10.4. Erakundeek euskarazko publizitatearen sortzaileekin batera elkarlanean jardutea (Toki erakundeak)			
2	10.4. 2.1.- Enpresa, merkatari eta elkarteei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak martxan jarri publizitatean euskararen erabilera bultzatzeko (Berripapera/HITZARGUNE)	- Artez - HNT	Urtero

Esparru honekin lotutakoak begiratu “Zehar lerrokoak” atalean (23. orrialdea)

11.- Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea

ESEP – EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Eragileak Laguntzaileak	Noiz
11.3. EAEko toponimia eguneratu, osatu, ofizializatu eta zabaltzea (Toki erakundeak)			
	11.3.4.1.- Protokoloa finkatu Udalak leku izen berriak jarri behar ditueneko	- Eusk. zineg. - Kultura zineg. - Kultura Batzordea	2024
1	11.3. 5.1.- “Gernika-Lumo eta inguruko ibilbideak” argitalpenaren zabalkundea egin	- Eskola Kontseilua - Euskaltegiak - Berritzegunea	Urtero
11.5. Adierazkortasuna zaindu eta indartzeko neurriak hartzea (Toki erakundeak)			
1	11.5.1.1.- Badihardugu alkartarekin lanean jarraitu “ahotsak.com” proiektuko grabazio digitalizatuen zabalkundea egiteko (Elkarlana)	- Badihardugu elkarte - HNT	2025
11.6. Euskararen kalitatea zaintzea (Toki erakundeak)			
	11.6.3.1.- Erabilera Plana (hizk. Irizpideak) eta hitzarmengintza kanpaina (aholkularitza) uztartu. (Udal adm-ko erabilera plana)	- HNT - Eusk dina	Urtero

12.- Hedabideak

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Eragileak Laguntzaileak	Noiz
12.5. Hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea			
2	12.5.2.1.- Gazteen ekimen komunikatiboak sustatu teknologia berrien eskutik (hausnarketa eta planifikazioa) (“MOBIDU Gernika” ekimenarekin uztarketa)	- Gazteri arloko Zin. - Inform. Bulegoa	Urtero
1	12.5.2.2.-DAGOENA ABERASTU.- Euskarako hedabideak lehenetsi albisteak hedatzeko (dekalogoarekin lotu...?)	- Eusk. zineg. - HNT - Komunikazio ard.	Urtero
12.7. Hedabideetako hizkuntzaren kalitatea bermatzea			
	12.7.1.1.- Aldaba aldizkariarekin elkarlana sustatu, euskararen presentzia areagotzeko bideak jorratuz...HITZARGUNE	- Hitzargune-Eusk dinam - Aldaba - Eusk. zin.	2025
	12.7.1.1.- Herri mailako komunikabideetan eskualdeko euskara formak erabiltzeko konpromisoak finkatu (Euskaltzaindiak “hiztegi batuan” aintzat hartutakoari jarraituz)	- Euskara Zin. - Hitza - Oiz-mendi - Bagabiz aldizk	2024 2026

Esparru honekin lotutakoak begiratu “Zehar lerrokoak” atalean (23. orrialdea)

13.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Eragileak Laguntzaileak	Noiz
13.1. Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa bateratu eta zabaltzea (Toki erakundeak)			
2	13.1.2.1.- Euskara Sailaren web gunea sustatu eta sare sozialen erabilera sustatu (hizkuntza irizpideen jarraipena – Erabilera Plana)	- HNT - Iametza - Eusk. dinam.	Urtero
	13.1.2.2.- Udal sailetako facebook kontuetan euskararen erabilera lehenetsi	- Prentsa bulegoa - Turismo - Hitzargune	Urtero
2	13.1.3.1.- Herritarrei teknologia berrien arloan euskaraz sortzen dena aditzera eman (programak deskargatzeko aukerak, tiketbai euskaraz) (Hitzargune, Web gunea)	- Informatikaria - KZ gunea	2024 2026
	13.1.3.2.- Herritarren eskura jarri euskararen kalitatea hobetzea helburu duten argitalpenak: idatzien ereduak, hiztegi elektronikoak, itzulzaile automatikoak... WEB gunea	- Komunikazio arloa	Urtero
	13.1.3.3.- Euskarazko eskaintza bermatu KZ guneetako ikastaroetan (koordinazioa landu)	- HNT - KZ guneen koordinak.	Urtero
	13.1.4.1.- Gernika-Lumoko Udalak Bizkaytik erakundearen bidez eratuta daukan webgunearen jarraipena (Prentsa bulegoarekin eta informatika arloarekin)	- Biscaytik erak - Informatikaria - Prentsa bulegoa	2025 2027
13.3. Euskarazko tresnak sortu eta sustatzea			
	13.3.1.1.- Herritarrek/erakundeek sarean ezartzen duten informazioa euskaraz ere egon dadin laguntzak bideratu: testuak euskaraz sortzeko, itzulpenak, zuzenketak,... (web gunea, HITZARGUNE)	- HNT - Euskara dinam - Itzulpen zerbitzua	Urtero
2	13.3.1.2.- BERRIA.- “Mobidu Gernika” plataformarekin influenzerren gaia landu (sare sozialena plataforma horrekin lantzearekin batera...)	- HNT - Euskara dinam. - “Mobidu Gernika”	2024 2026

Esparru honekin lotutakoak begiratu “Zehar lerrokoak” atalean (23. orrialdea)

IV.- Helburuak lortzeko zehar lerroak:

- Euskararen aldeko motibazioa:

14.- Sentsibilizazioa eta motibazioa

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioretatik hartutakoak)	Laguntzaileak Eragileak	Noiz
14.1. Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea (Toki erakundeak)			
	14.1.1.1.- Alderdi politikoei begirako lanketa (Plan Estrategikoa eta Administrazio Erabilera Planaren informazioa; helburua, jakitun egotea eta programetan proposamenak txertatzea)	- HNT - Trebatz/itzultz - Alderdi politik	2024
2	14.1.1.2.- Hauteskundeetan hautatutako kargu politikoei begirako lanketa (Plan Estrategikoa eta Administrazio Erabilera Planaren informazioa); helburua, euskararen normalizaziorako oinarritzko ebazpenak ezagutzea) DAGOENA ABERASTU- Erabilera Planean aintzat hartuta (kargu publikoen euskararen erabilerari buruzko galdeketa eta neurketa). DAGOENA ABERASTU- Erabilera Planean aintzat hartuta (kargu publikoei Erabilera Planaren zabalkunde egitea).	- HNT - Trebatz/itzultz - Kargu politik.	2024
	14.1.1.3.- Politikarien artean euskaraldiko hamaikakoak sortu, dagokionean	- Udal taldeak - HNT	2025 2027
2	14.1.1.4.- BERRIA- Instituzioen artean hizkuntza irizpideak adostu eta kanpaina burutu (Udaleko Erabilera Planean jasotakoa)	- Alkatea - Kultura/Eusk. zineg. -	2025
	14.1.5.1.- Tokian tokiko hizkera eta toponimia ondarea jaso, argitaratu eta hedatu (Udal toponimiaren zabalkundeak)	- Euskara Zin. - Kultura Zuz. - Udal Eskola kontseilua	2025 2027
	14.1.7.1.- Euskararen aldeko eguna, asteburua, astea. (ABENDUAK3 / egitaraua)	- Euskara Zin. - Euskara dinam - Berbalagun - Bai eusk. ziurt	Urtero
14.2. Familia transmisioa (Toki erakundeak)			
	14.2.1.1.- Guraso eta aitona-amonenganako sentsibilizazio kanpaina burutu, euskaltegiara bideratu eta ikastalde bereziak sortzeko... (KANPAINA berezia)	- AEK euskalt.	Urtero
14.3. Irakaskuntza (Toki erakundeak)			
	14.3.2.1.- Informazioa eman herritarrei euskarazko helduen prestakuntza zerbitzuez: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu...	- Kultur Etxea - Prentsa zerb.	Urtero

14.4. Euskalduntze-alfabetatzea (Toki erakundeak)		
14.4.1.1.- Euskara ikasteko prozesuaren gaineko informazio orokorra eskaini modu erakargarrian: web orria erabilita, triptikoak, eskualdeko aldizkaria...EUSKALTEGIEKIN ELKARLANA	- Euskaltegiak	Urtero
14.4.1.2.- Euskara ikasteko eta euskara lantzeko (unibertsitatea) ikastaroetarako diru-laguntzak eskaini baldintza batzuk betetzearen truke: matrikula, asistentzia, DIRU-LAGUNTZA ARAUDIA / DEIALDIA	- Euskaltegiak	Urtero
14.5. Administrazioa (Toki erakundeak)		
14.5.2.1.- Herritarrek udalarekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio kanpaina (“Zuk zergatik ez?” kanpaina)	HNT Treibatz/itzultz. Eusk. dinamiza.	2025
14.5.2.2.- Herritarrak sentsibilizatu, sare sozialen bidez presioa egin dezaten euskararen erabilera xede (“MOBIDU Gernika” gazteen ekimena)	Eusk. zin. Eusk. dinamiza. Prensa arloa	2024 2026
14.6. Arlo sozioekonomikoa (Toki erakundeak)		
14.6.1.2.- Udala bezero den heinean protokoloa zehaztu udalak eskaera egiteko bere hornitzaile guztiei aurrekontu eta faktura guztiak euskaraz izan daitezten. (Udal adm-ko erabilera plana)	- Eusk. dinam. - Artez	2024 2026
2 14.6.1.3.- Saritu euskararen erabilera areagotzeko planak abian jartzen dituzten enpresak/erakundeak/elkarteak: diru-laguntzak enpresetako Euskara Planetarako, aipamen berezia herriko web orrian...BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA / Diru-laguntza deialdia)	- HNT - Bai Euskarari elk. - Artez	Urtero
14.6.3.1.- Herritarrengan eta merkatari edo ostalariengan eragin, Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua bereganatzearen onurez, herritarraren hizkuntza hautua errespetatzeko lehen hitza euskaraz izan dadin, hizkuntza paisaia zaintzeko...BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA / banaketa)	- Eusk., zin. - HNT - Merkatari elk.	Urtero
14.6.3.2.- (BERRIA) Merkataritzan sare sozialak, eta instagram bereziki, euskaraz erabiliak izan daitezten bultzatu eta segimendu berezia egin HITZARGUNE kanpainaren bitartez.	- Merkataritzako tekn. - Euskara teknikaria - Eusk. dinamizat. - Merkatari Elkartea	2024
14.7. Aisia eta kirola (Toki erakundeak)		
14.7.1.1.- Laguntza teknikoa eskaini, erlijio saioretako materialaren itzulpenetarako eta testuak kalitatezkoak direla bermatzeko... HITZARGUNE-elkarteak	- Artez - Elizbarrutia - HNT	2024
14.7.1.2.- Hitzarmena sinatu aisialdi taldeekin (kirola, kultura, aisia), euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko (HITZARGUNE kanpaina elkarteekin)	- Eusk. zin. - Artez - HNT	2024

	14.7.1.3- (BERRIA) Zaharren egoitzako ikastaro eskaintzan euskararen presentzia areagotzeko hitzarmena sinatzea Jubilatuen elkartearekin	- Ongizateko zineg. - Euskara zinegotzia - Eusk. dinamizatz. - Jubilatuen elkarte	2025
	14.8. Liburugintza (Toki erakundeak)		
	14.8.1.2.- Modan dauden idazleen hitzaldiak antolatu: idazteko teknikak, ohiturak, inspirazioa, bidaiak, liburuen komentarioak. BERBALAGUN / Idazleak ikastetxera programa....	- Berbalagun tek - Eskolak	Urtero
	14.8.1.3.- Liburuaren eguna ospatu (Liburutegia eta Euskara Zerbitzua elkarlanean)	- Kultura Zuz. - HNT	Urtero
	14.8.1.5.- Euskarazko komunikabideen harpidetzak doan egin (Hasi-Hezi aldizkaria-matrikulatu berriak diren ikasleen gurasoentzat; Hitza zentro publikoetan irakurgai utzi)	- Kultur Etxea - Eskolak - Eusk. Dinam.	Urtero
	14.9. Kulturgintza (Toki erakundeak)		
	14.9.1.1.- Herriko kultur elkarteekin hitzarmenak sinatu, haietan euskararen erabilera sustatzeko (HITZARGUNE / kultura)	- Eusk. zin. - Artez - HNT	2025 2027
	14.9.2.1.- Etorri berriei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak, euskarazko kultur jarduerak kontsumitzera animatzeko (Jaioberrien kanpaina, EPK, harrera protokoloa, ikastaro bereziak)	- HNT - Eskola Kont. - Kultur Etxea - Eusk. zin.	Urtero
	14.10. Hedabideak eta publizitatea (Toki erakundeak)		
	14.10.1.1.- Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu. Komunikabideekin hitzarmenak	- HNT - Prentsa kabin. - Hitza/Oizmen /Bagabiz/Aldab	2024
1	14.10.1.2.- Busturialdeko Hitza egunkariari diru baliabideak bideratu, urteanitzeko hitzarmenaren arabera HITZARMENA DAGOENA ABERASTU.- Hedabideekin sinaturiko hitzarmenak aberastu: baliabide gehiago, albisteak udalaren sare sozialetan partekatzea,	- Euskara zinegotzia - Hitza - HNT	2024 2027
	14.10.1.3.- Udalerrri mailako irrati-telebista zerbitzua esleitu, euskarazko hedapena egitea helburu HITZARMENA	- Euskara Zin. - Oizmendi - HNT	2024 2027
2	14.10.1.4.- BERRIA.- Dekalogo bat sortu Euskara Batzordearen izenean prentsa komunikazio arlorako (prentsa bulegoa) eta 100 eguneko epe bat jarri bete dadin.... Bestela salaketa bidea joratu.	- Euskara Batzordea - Euskara zinegotzia - Komunikazio ard. - HNT	2024 2025
	14.11. Teknologia berriak (Toki erakundeak)		
	14.11.1.- Herritarrengan eragin, batez ere gazteenengan, euskaraz jo dezaten sarera informazio bila. (MOBIDU Gernika, Gurot lehiaketa,...)	- Gazte inform - Eskolak - Astra koord	2024 2026

- Euskararen zabalkundea:

15.- Barruko proiektzioa

ESEP - EKINTZAK	AZPIEKINTZAK (ESEPn arabera egindako dinamizazio saioetatik hartutakoak)	Laguntzaileak Eragileak	Noiz
15.1. Euskararen irudi positiboa indartzea (Toki erakundeak)			
15.1.2.1.- Jaurlaritzaren ardurapean errolda berriztatzen denean, euskarari buruzko galderak eta datuak jasotzeko bideak jorratu.		- HNT - Erregistro Ard. - Jaurlaritza	2024
15.1.2.2.- 2025ean erabileraren kale neurketa berezia egin Soziolinguistika Klusterraren eskutik.		Soziolinguistika Klust. HNT	2025
15.1.2.3.- 2024ko "Euskaraldia" ekimenarekin bat egin (koordinazio guneak: Euskaraldia Batzordea /Topagunea)		HNT Euskara dinamizatzailea Artez enpresa	2024 2026
15.2. Hizkuntza paisaia euskalduntzea gune euskaldunenetan, hiriburuetan eta baita gune jendetsuetan ere (Toki erakundeak)			
15.2.1.1.- Herriko jaietan antolatzen diren ekitaldietan euskararen erabilera bermatu (publizitatea, megafonia, esatariak...). JARRAIPENA Erabilera Plana, Jai Batzordea		- Euskara Zin. - Jai Batzordea - HNT	Urtero

16.- Kanpoko proiektzioa

GOI ERAKUNDEEN ERAGINPEKO ESPARRUA.